



Hitzarmen berria Getxo Enpresaren eta Kutxabanken artean, tokiko negozioa bultzatzeko

Ander González, Txukun garbitegikoa: “STaren kontua eta gainerako eragiketena bateratu ahal izan dugu”

Getxo, 2023ko maiatzaren 18an- Elena Cantera, Getxo Enpresako zuzendariak eta María Artaza, Kutxabankeko eskualde-zuzendariak tokiko negozio txiki kideentzako finantza-hitzarmena berritu dute, eta elkarlanean jarraituko dute salmentak sustatzeko eta 2022an sektoreak izandako susperraldia sendotzeko zenbait jardueretan; izan ere, ekitaldi horrek 2023 ona aurreikusten zuen.

Hitzarmen horri esker, Txukun garbitegiko Ander Gonzálezek (Getxo Enpresako kidea) duela pare bat urte lortu zuen “*STaren banku-kontua eta gainerako finantza-eragiketena integratu eta bateratzea*”.

Bankuak aukera emango die profesional eta enpresa kideei kreditu-txartelaren bidez egiten diren ordainketak geroratu ahal izatea eskaintzeko bezeroei, *Plazox*-en bidez. Halaber, zenbait tresna finkatuko ditu salmentak errazteko, tartean, *Kutxabank Bizum Negozioak* sistema. Sistema aitzindaria da, eta hilean eragiketa kopuru mugagabea egiteko aukera ematen die saltoki eta profesionaleri, bai aurrez aurreko kobrantzetarako, bai urrunekoetarako.

Finantza-erakundearen zerbitzuak kide bakoitzaren arazoetara egokitzen dira. Ander Gonzálezek dioenez (Algortako Txukun garbitegia), “*hainbat erakunderen kontuetan sakabanatuta geneuzkan abantailak eta STa bateratu eta hobetzeko premia nuen, eta Kutxabanki esker lortu dugu*”. Abantaila gehiago ere



azpimarratzen ditu, adibidez, *“sukurtsalaren hurbiltasuna, eskudirua sartzeko erraztasuna (garbigailuetakoa) edo aseguruaren kudeaketa”*. *“Hitzarmena berritu den honetan -diosku Txukuneko arduradunak- berriz ere bilduko gara haiekin, hobekuntzez hitz egiteko”*.

Getxo Enpresaren negozio kideen kudeaketarako konponbide egokiak eskaintzeko, Kutxabankek sarbidea emango die *Negozio Maileguak* barne hartzen duen finantza-produktuen eskaintzarako, aukera emango die erosketak *Saltoki Maileguaren* bidez finantzatzeko (izapiderik ez du, eta establezimenduan bertan egin daiteke) edo *Ticketbai* STa, Batuz zerga-araua erraz bete ahal izateko. Android sistema eragilea duen datafono bat da, eta kutxa kudeatzeko aplikazio bat du (DPOS). Salmentan erabiltzen den ordainbidea edozein dela ere (eskudirua edo txartela), faktura sinplifikatu bat sortzen da, telematikoki helarazten zaiona Foru Ogasunari, betekizun tekniko eta legal guztiekin. Dagoeneko EAEko 1.000 negozio txikik baino gehiagok aukeratu dute zerbitzu hori, berariazko inbertsiorik egin gabe egokitu daitezkeelako araudi berrira. Negozio Kontua ere badute, eta arrisku anitzeko aseguruak, saltokietara berariaz bideratua, baita ibilgailuen renting-eskaintza abantailatsu bat ere.

Kutxabanki buruz

Kutxabank Euskadiko eta Kordobako banku nagusia da. 700 bulego baino gehiago ditu, jatorriko lurraldeetan kapilaritate handiena duen bulego sarea du eta Andaluzian, Madrilan eta Katalunian presentzia nabarmena du. 5.000 profesionaletik gora osatzen dute Taldea. Europako ikuskatzaileen arabera gure finantza-sisteman kaudimen onena duen bankua da eta Europako arrisku-profil onena duen hirugarren erakundea.